


Olga Lucia Marin

• FARCEKO NAZIOARTEKO ZUZENDARITZAKO KIDEA •

■ ■ ■ Une erabakigarrian dago Kolonbiako gatazka. Izan ere, bi gerrilla nagusiak —Kolonbiako Indar Armatu Iraultzaileak (FARC) eta Askapen Nazionalako Armada (ELN)— bake prozesu banatan murgilduta daude. FARCen eta Kolonbiako Gobernuaren arteko aurreko elkarrizketak gaur hasiko dira San Vicente de Caguanen. Hori dela eta, gerrilla horretako buruzagitza nahiko itxaropentsu agertu da etorkizunera begira.

«Aldaketa sakonek baizik ez dute ekarriko bakea Kolonbiara»



RICARDO MAZALAN / AP

FARCen Nazioarteko bulegoan, Mexikoko lekuren batean, harrapatu dugu telefono bidez Olga Lucia Marin. Gerrilla horretako Nazioarteko Zuzendaritzako kidea da, eta bake prozesuaren prestakizun guztiak hurbiletik segitu ditu.

■ Esperantza onak al dituzte hurrengo egunetan izango diren negoziazio hauek direla eta?

Guk beti proposatu dugu gatazka politiko eta sozial honi, nola edo hala, irtenbide bat eman behara. Ildo horretatik, Gobernuari aldarrikapen plataforma bat aurkeztu diogu, hamar puntutan bilduz gure ustez herriak gehien sentitzen dituen eskaerak. Hortik zer aterako den, aurreko egingo den ala ez, Gobernuaren borondatearen menpe dago. Guk geure indar guztiak jarriko ditugu prozesu honetan, baina azken erabakia estatuak izango du.

■ Zergatik daude orain negoziazioari heltzeko bal-

dintzak, eta ez lehenago? Andres Pastrana boterera heltzeak lagundu du?

Bai, hauteskunde kanpainan Pastranak esan baitzuen gerrillekin hitzegino zuela gobernura helduz gero. Guri interesgarria iruditu zitzaigun jarrerara hori, eta orduan, lan egin genuen aurrera egiteko baldintzak sortuz eta estaturuaren eta Manuel Marulanda komandantearen arteko bilera eginenez. Pastranaren proposamenari erreparatuta, konturatu ginen posible zela lehendakari berriarekin hitz egiten hastea.

Aurreko gobernuarekin ez zen halako prozesurik gauzatzeko aukerarik, gobernu ile-

gitimoa zelako, narkotrafikoari lotua, eta gerra deklaratu zizulako behin eta berriz.

Pastrana

«Konturatu ginen Pastranarekin hitz egiten hastea posible zela. Aurreko gobernuarekin ez zen halako prozesurik gauzatzeko aukerarik, gobernu ilegítimoa zelako»

argi ikusten dugu Kolonbiak ez duela estatu batuarren segurtasun nazionalaren teoria behar, segurtasunaren teoria bolibartarra baizik, hau da,

San Vicente de Caguanen guztia prest.

Elkarrizketak hasteko eta «giro egokia lortzeko», Andres Pastrana kontserbadorearen Gobernuak 42.000 metro karratuko inguru bat desmilitarizatu zuen, Bogota hiriburutik hegoaldera, Amazonas oihan inguruan. San Viceten de Caguan da inguru horretako udalerri nagusia (10.000 biztanle) eta elkarrizketak egingo diren lekua. Atzo, guztia prest zegoen jada Gobernuko zein FARCEko ordezkariak, eta negoziazioen begirale izango diren mila pertsona inguru hartzeko.

herriaren defentsa aldarrikatuko duen kontzeptua.

Guk uste dugu bake prozesua iraunkorra eta emankorra izango dela, bene-benetan aldaketa batzuk egingo badi-ra. Bestela, zoritxarrez, ezin izango dugu bakeaz hitz egin, ez da bakerik izango.

■ Kolonbiatik heltzen zaizkigun albisteak izugarriak dira. Bortizkeria eta hildakoak nagusi dira, ez soilik biolentzia politikoren ondorioz.

Egia esan, egoera hau estatu terrorismoaren ondorioa da. Estatu terrorismoa hau ez da oraingoa, aspaldikoa da. Fenomeno hau duela 50 urte hasi zela esan genezake, betidanik borrokalari politikoak hilt baitituzte Kolonbian.

Beste alde batetik, politika ekonomikoak ere eragin handia du honetan. Herritarren kalterako den politika ekonomikoa ezarri da eta horren ondorioz, herritarrek bizirik irauteko bide ezberdinak bi-

EEBB

«Estatu batuarrek esan dute interesaturik daudela gatazka hau konpon dadin. Hala ere, gerra finantzatzeko dute, baina bada Estatu Departamenduan sektore bat irtenbide negoziatua nahi duena»

latu behar izan dituzte. Kolonbian 30.000 lagun inguru hiltzen dira urtean indarkeriaren ondorioz, eta haietatik 3.000 gatazka politikoaren ondorioz. Baina kaos hori guztia egoera ekonomikoari lotua dago, desberdintasun handiak baitaude.

■ EEBBtako eta FARCEko ordezkariak bilera bat egin berri dute Costa Rican. Zein rol jokatzeko ari da Washington prozesu honetan?

Bai. Estatu batuarrek esan dute interesaturik daudela gatazka konpon dadin. Beraiek, hala ere, baldintza batzuk jarri nahi dituztela esan dute, eta guk esan dugu ez dugula baldintzarik onartzen. Gainera, Kolonbiako gerran beraiek ere erantzukizuna badutela adierazi diegu. Gerra finantzatzeko ari dira, horretarako aurrekontuak handitzen. Hala ere, badago sektore bat Estatu Departamenduan irtenbide negoziatua nahi duena. Horretarako egin ziren elkarrizketa horiek.

■ Zerk bultzatu ditu EEBBak une honetan FARCEkin elkarrizketatzera? Arrazoiren bat ikusten duzue erabaki horren atzean?

Bi interes nagusi dituzte: narkotrafikoaren inguruko afera konpontzea, batetik, eta bahiketen ingurukoa, bestetik. Esan diegu narkotrafikoarena ez dagoela gure esku, guk ez dugula zerikusirik negoziorekin. Hala ere, plan serio bat egiten bada droga landaketak beste landaketa batzuekin ordezkatzeko, nazioarteko babesa duen plan bat, gu prest gaude hori aurrera eramaten laguntzeko, eta halaxe jakinarazi diegu EEBBei. Baina hori ez dago FARCen menpe, baizik eta Kolonbiako Gobernuaren eta nazioarteko komunitatearen borondatearen menpe.

Idurre Eskisabel

DONOSTIA